

■ erantzuguazu...



943 300 228



zuzendariari@jalgi.com

Txakurrek kalean muturrekoarekin eta lotuta ibili beharko lukete?

■ **Ni egun osoan zehar** ez naiz mugitzen. Balkoian uzten naute, libre. Begiak bai, mugitzen ditut eta balkoiko burdinazko barroteen artean kalean ikusten dut bizitza. Jabea etortzen denean -fabrikan lan egin eta gero, supermerkatuan erosketak egindakoa, zineman filme bat ikusi ostean, primitiba bete ondo-

Ez dira argitaratuko izenik gabe iristen diren mezuak. Izen-abizena eta telefono zenbakia eman behar dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak badu horretarako eskubidea.

Hurrengo galdera:

Telebista egokia al da haurrentzat?

ren, elizan errosarioa errezatutakoan(...) -, eguna amaitzen denean, nire jabea etxeratzten denean eta etxe-ko lanak burutu dituenean, muturrekoa jarri eta larruzko

uhalaz lotuta paseatzera ateratzen nauean poztu egiten naiz. Horixe baitez. Poztuko ez naiz ba, egun osoan balkoira-tua! Hala ere, nik zuei gauza bat esan nahi

dizuet. Zergatik galdetzen duzue galdetzen duzuen? Nire ustez, txakur baten ikuspuntutik behintzat, hauxe litzateke galdera egokia: ez al da larria, kaltegarria eta negargarria txakur piloa (milaka txakur, milaka etxetan) egun osoan gelatxo edo balkoi estuan egon beharra? **Cecilio Rodrigo** (Bilbo)



galdeiozu...

Jean Haritzelhar

EUSKALTZAINBURUA

Ez al zaizu iruditzen Euskaltzaindiak bezeroentzako berehalako arreta zerbitzua eduki behar lukeela zalantzak argitzeko?

Jose Luis Jaunarena [Iruñea]



■ **ZERBITZU BERRI BAT BEHAR GENUKE EGIN?** Nik us-te jada Jagon saila horretan ari dela, euskara egoki bat aldarrikatzen. Egia da ere galderak baditugula, baina horretarako Euskaltzaindia informatizatu behar da, baliabideak behar dira, sare informatikoa egin behar. Horrela, galdera sare eginez edozein galderak erantzunak ukanen lituzke. Baina guk datu baseak baditugu (idatzia, ahozkoa...)

Otsailaren 16tik aurrera

Benito Lertxundi • ABESLARIA izango da

Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.



zuzendariari

**Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain**

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 le-
rro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta
NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere
esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

Elkoro falta

Biltzar historikoa, garrantzitsua, ilusioaren pizgarri; Euskal Herria bere osotasunean, aniztasunean, pluraltasunean, aztertzen, eraikitzen... aurrera pauso nabaria.

Euskal Herriaren izaera eta etorkizuna bermatzeko, oinarriak ipintzeko, ezinbestekoa den subjektu nazionalaren protagonismoa eta nazio mailako instituzio berrien eraikuntza bizkortu eta sendotze bidean, lehen urratsa. Herritarrengandik hurbilen dagoen instituzioa. Lan ugari, bide luzea...

Intoxikazio eta mehatxu guztien gainetik Nafarroatik ere 87 udal.

Euskal Herriaren (ez diot aber-tzaletasunaren) arerioaren iritziak entzutea aberasgarria izan daiteke. Baina funtsean berdinak direnean, saio berean 5-6 bider errepikatzen direnean, euskal demokraziaren bultzatzailea den gehiengo iraindu besterik egiten ez dutenean, errea-

litatera hurbiltzeko edo objetiboak izateko ahaleginik ez dagoenean, geure komunikabide publikoetan ere jasan behar ote ditugu? Ez ote litzateke nahiko laburpen labur bat-ekin? Ez ote da garaia, geure komunikabideek Euskal Herriaren alde (ez diot nazionalismoa), irudime-nez eta tinko egin dezaten? Neuk behintzat eskertuko nizuke!

Aurpegi alaiak, pozez gainezka, giro ezin hobea... otsailaren 6an Carlos III zineman. Baina, Bergar-ko alkate ohia, alkateen mugimen-duaren bultzatzaile eta dinamiza-tzaile izan zen eta mahaian ikusten ez genuen (baina ziur bere nahia eta gogoia biltzarretik ibili zela) Elkoro espetxean. Besarkadarik beroena zuri eta guztioi. Biltzarretik hurbilago senti zaitezten, neure zoriona zuekin konpartitu nahi nuke. Ma-

hai Nazionala askatu! Euskal Pre-soak Euskal Herrira! **Joze Goikoe-txea** • BARAKALDO (BIZKAIA)

Michael Kosch kapitainari

Hegaldi komertzialetan ohi dan lez, hegazkinak lurra itzi ta minutu batzuetara, kapitainak bere burua aurkeztu, bidatziei ondo etorria egin eta hegaldiaren ganeko jakingarri batzuk esan daroaz. Hau guztiau hizkuntza baten edo batzuetan esan be.

Bagentozan, bada, arteragoko as-teko egunean Frankfurtetik Sondi-kara Lufthansaren gaueko hegaldian. Halango baten, lurra itzi eta na-bigazino goiorea jadetsi ostean, kapitainaren abotsa argi ta garbi entzuten hasi zan. Aurrean aitaturakoa

iragarri euskun berak, lau hizkuntzan iragarri be. Euron artean, euskeraz. Ederto irakurria edo esana, bardin deutso. Zurtz eginda lotu gintzazan honantza gentozan guztioi, euskera be entzunkeran. Egundoko ezuste ederra kapitainarena. Ohi ez lako gauzea. Nork eta kapitan alemaniarak. Nongoa eta Lufthansakoa. Zoritxarrez, gurera hurreratuten di-ran aire-konpainiek ahaztua gaukez, eurentzako euskaldunik egon, ez da-go eta. Baina Michael Kosch kapitainak baekian jakin Euskal Herrira ginoiazana. Baekian Herri honek bere hizkuntzea daukana. Kosch kapitainak marketing hutsa baino gehiago erakutsi euskun, begirunea, Herri honenganako begirunea, hatan be. Edo hori begitandu jatan neuri, behintzat. Eta hori eskertzekoa da. Ez dakit inoiz idazkitxu hau irakurri-ko dozun, baina lerrootatik eskerrik beroenak emon gura deusudaz. Ohorea zuri Kosch kapitaina! **Iniki Martiartu** • BAKIO (BIZKAIA)

• MONTXO •

